

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE. KUTXATEKA.

BIGARREN ABERRI EGUNA, 1933AN DONOSTIAN

1933ko apirilaren 16an bigarren aldiz ospatu zen Aberri Eguna, oraingoan Donostian. Eguneko leloa “Euzkadi/Europa” izan zen. Manifestazio batek Gipuzkoako hiriburuko kale nagusiak zeharkatu zituen, eta Atotxa pilotalekuan egindako mitin handi bat izan zen ekitaldirik aipagarriena. Herrialde guztietatik etorritako 60.000 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten antolatutako ekitaldietan, eta autoz, trenez, autobusez eta bapore txikiz iritsi ziren. Bertan izan ziren Edwal Ammende, Genevako Gutxiengo Nazionalen Kongresuko idazkaria; Francesc Maspons eta Manuel Carrasco i Formiguera katalanak; eta Jesus Doxandabaratz Muruzabal, EAJko Euskadi Buru Batzarreko presidentea. Besteak beste, Jose Antonio Agirrek hartu zuen hitza, hiru urte geroago Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakaria izango zenak. Edwal Ammenderi buruz, Agirrek honako hau adierazi zuen: «Esaiozue Europari hemen herri esklabotu bat dagoela, bere eskubide naturalak aitortzen ez zaizkiona, bere hizkuntza bozaturik duena, eta bere sentimenduak laidotzen ari direla. Esan hemen aberri bat dagoela, eta aberri hori existitzen dela bere herria askea izan dadin. Herri hau zutik dago, bere independentzia nazionalerako bidean, egunen batean ezinbestean iritsiko dena ».